

Hondakin-urak, bizimoduaren ispilu

Laburpena

Elkarren antipodetan egindako bi ikerketak agerian utzi dute komunitate beharjoko diren hondakinek jendearen bizimodua salatzen dutela. Hain zuzen, Europako droga-kontsumoaren berri eman du hondakin-uretan oinarritutako ikerketa batek, eta, besteak, Australian egindakoak, ur beltzak maila sozioekonomikoaren ispilu direla erakutsi du.

Gako-hitzak: hondakin-ur, droga, maila sozioekonomiko

Abstract

Two investigations conducted in antipodes of each other have exposed how all wastes flushed down the toilet give people's lifestyle away. In point of fact, an investigation based on sewages has rolled Europe's drug consuming habits out, and another one, performed in Australia, has proved how faecal waters mirror socioeconomic status.

Keywords: sewage, drugs, socioeconomic status



Ana Galarraga Aiestaran
Elhuyarreko zientzia-komunikatzailea

Bidaltze data: 2019-10-19
Onartze data: 2020-03-14

Europako Batasuneko agintariek ahalegin handiak egiten dituzte droga ilegaleko kontsumoa neurtzeko eta joerak ezagutzeko. Horretarako, hainbat metodologia erabiltzen dituzte, hasi norbanakoen inkestetatik eta ospitaleetako eta poliziaren datuetaraino. 2011n, metodo berri bat probatu zuten, anonimoa eta manipulagaitza: hirietako hondakin-uretan dauden droga-arrastoak neurtzea. Kasu batzuetan, droga bera neurtzen da, eta beste batzuetan, haren metabolitoak (metabolismoaren hondarrak); edozein kasutan, ikertzaileek frogatu dute metodo baliagarria dela jakiteko zer droga, noiz eta zer kantitatetan kontsumitzen diren aztertutako hondakin-uren jatorrizko lekuetan.

2011ko lehen ikerketa hartan, Europako 19 hiritan egin zituzten neurketak, bost droga ilegal analizatu: kokaina, kanabisa, anfetamina, metanfetamina eta MDMA. Geroztik, azterketa horiek egiten jarraitu dute, bilakaera ikusteko, eta leku gehiagotara zabaltzen dituzte: 19 hirietatik (14.1 milioi pertsona hartzen zituztenak) 73ra igaro dira 2017an (37.9 milioi pertsona). Europako mugak ere gainditu ditu, eta Australian, Zeelanda Berrian, Kolonbian, Martinikan, Kanadan, AEBetan, Hego Korean eta Israelen ere egiten dira.

Orain, Europan 2011tik 2017ra bildutako datuen ondorioak argitaratu dituzte. Hasierako bost substantzia horietatik, kanabisa ez gainerako lauren bilakaera aztertu dute zehazki, eta ikusi dute kokainaren kontsumoa nabarmen hazi dela Europa osoan, eta hori bera dela Europako hegoaldeko eta mendebaldeko droga nagusia (Suitza, Italia, Frantzia, Espainia eta Erresuma Batua).

Belgikan eta Herbehereetan anfetaminaren kontsumoak ere gora egin du. Metanfetamina, berriz, besteak baino gutxiago kontsumitzen da, baina bereziki agertzen da ekialdeko herrialdeetan (Eslovakia, Txekiar Errepublika eta Alemaniaren ekialdea), eta Europako iparraldera eta erdialdera zabaltzen ari da.

Azkenik, MDMA, ikerketan aipatzen den laugarren substantzia, ez da inon nabarmentzen, baina haren kontsumoa hazi egin da urte horietan.

Ikertzaileek ohartarazi dute kanabisaren kontsumoa neurtzeko modua aldatu egin dutela 7 urte hauetan; horregatik, datuak ez dira konparagarriak eta ez dute bilakaera ondorioztatzerik izan. Hori alde batera utzita, baina, berretsi dute metodologia aproposa dela substantzien kontsumoari jarraipena egiteko, eta horretarako erabiltzen diren beste metodoen osagarri egokia.

Drogak ez ezik, maila sozioekonomikoa ere

Australian, pauso bat harago joan dira, eta, hango azterketa Europakoa baino laburragoa eta hedadura txikiagokoa izan bada ere, bestelako informazioa, neurri batean ezkutua, erazi dute hondakin-uretatik. Hain zuzen ere, 42 adierazle biologiko neurtu dituzte, eta zenbait datuekin gurutzatu dituzte: erroldatik eratorritako adierazleak, abantaila eta desabantaila sozioekonomiko erlatiboaren adierazlea (IRSAD), batez besteko adina eta areako 40 adierazle sozioekonomiko (SEIFA). Horrela, diferentzia sozioekonomikoei antzemateko gai izan dira hondakin-uretan.

Ikerketak astebete iraun du, eta Australiako 6 estatutan egin da. Neurtutako adierazle horiek hainbat substantziaren kontsumoarekin lotuta daude; horien artean daude bitaminak, zuntza eta zitrikoak, kafeina, opioideak, antidepressiboak, antikonbulsiiboak, droga ilegalak (anfetamina, metanfetamina), tabakoa, mina kentzeko botikak (ibuprofenoa eta beste antiinflamatorio batzuk), antihistaminikoak, hipertentsioaren kontrakoak, antibiotikoak eta gozagarri artifizialak.


Adierazleen neurketak eta hondakin-uren jatorria aztertuta, ondorioztatu dute maila sozioekonomiko altuko jendea bizi den lekuetan kafe-, alkohol-, bitamina- eta zuntz-kontsumoa altuagoa dela, beste eskualde batzuetan baino. Antza denez, Australian alkohola garestia da, eta ohiko edaria tea da; kafea, berriz, modakoa. Horrek azaltzen du aldea. Bitaminak eta zuntza, berriz, barazki eta fruta freskoen kontsumoarekin lotuta daude (biak ere garestiak).

Aldiz, maila sozioekonomiko baxuko jendea bizi den eremuetako uretan antidepressiboak eta opioideak nabarmentzen dira, baita hipertentsioaren kontrakoak eta mina kentzekoak ere. Aipatzen den beste botika-mota bat antikonbulsiiboak dira; ikertzaileen arabera, suizidioekin lotzen dira. Eta botika legal horiekin nahasita, substantzia ilegalen arrastoak ere azaltzen dira ur horietan.

Azkenik, badira maila sozioekonomikoak bereizten ez dituzten substantziak: antibiotikoak eta gozagarri artifizialak, hain zuzen ere. Azken horien kasuan, batek pentsa lezake bitaminen eta zuntzaren kontsumoarekin kontraesanean dagoela, baina, ikerketa honetan behintzat, ez dute ikusi gozagarrietan alderik dagoenik maila sozioekonomikoaren arabera.

Bi ikerketa horiek, beraz, agerian jarri dute etxeetako gela intimoena, komuna, ez dela sekretuak gordetzeko gai; aitzitik, erabiltzaileen ohitura ezkutuenak salatzen ditu, baita ponpari tiratu arren ere.

+++



Egilea – Anartz Ormaza Ugalde

Bibliografia

Gonzalez-Mariño, Iria et al. (2019): «Spatio-temporal assessment of illicit drug use at large scale: evidence from 7 years of international waste», *Addiction*, <https://doi.org/10.1111/add.14767>

EMCDDA (2019): <http://www.emcdda.europa.eu/topics/pods/waste-water-analysis> (Bistaraturako eguna: 2019/11/19).

Choi, Phil M. et al. (2019): «Social, demographic, and economic correlates of food and chemical consumption measured by wastewater-based epidemiology», *PNAS*, <https://doi.org/10.1073/pnas.1910242116>.